

# KOSTU EGITURA

Gure enpresak kostu finko batzuk edukiko ditu, horietako bi gure bulegoaren alokairua eta langileen soldatak izango dira, horren barruan argindarraren eta uraren gastuak sartuko dira baita ere, bestetik gure enpresaren beste kostu finkoen barruan interneteko webgunearen kostuak eta informaziorako eskuratuko ditugun telefono lineak egongo dira.

Baita ere kostu aldakorrak izango ditugu, alde batetik diseinuak egiteko erabilitako programak eta materialak eta bestetik produktuak egin ahal izateko erabiliko ditugun materialak eta tresnak egongo dira. Kostu hauek minimizatzeko nahian oreka jasangarri bat bilatuko dugu enpresa buru guztien artean.

Gure produktuek ondo funtzionatzen joaten baldin badira, gure bezeroak geroz eta modelo gehiagotan inkorporatuko du gure sistema, eta horrezkero produkzio handiago izanik gure kostuak murriztu egingo dira material gehiago erosiz gero deskontu handiagoak egingo dizkigutelako.

Ez ditugu produktu ezberdinak salduko, gure enpresak produktu bakarra saltzera limitatu egingo da beraz ez ditugu material mota ezberdin asko erosiko, orduan arriskua gutxituko egingo dira.

Gainera gure funtsezko baliabideak, jarduerak eta elkarteak zein diren dakigunez erraza izango zaigu oreka jasangarria aurkitzea kostuak zenbatekoak izango diren kalkulatu ditzakegulako gutxi gorabeherako tarte murriztu batean.